

EZAGUTZAREN ATARIAREN LAGUNTZA: OHIKO GALDERAK

- **Zer jasotzen du Euskal Osasun Sistemaren Ezagutzaren Atariak?**

Atari honen helburua da Euskal Osasun Sistemako profesionalen ekoizpen intelektual eta zientifikoaren emaitzak bildu eta aurkeztea, ezagutarazteko eta ikusgarritasuna eta eragina hobetzeko.

- **Nola antolatzen da Atariaren edukia?**

Hiru bloke handitan egituratzen da: Taldeak, Ikertzaileak eta Emaitzak.


- Taldeak: Ikerketa Sanitarioko Institutuen arabera sailkatutako ikerketa-taldeak aurkezten dira. Talde bakoitzak bere arduradunei, kideei, argitalpenei, kolaborazioei, tesiei, patenteei eta adierazleei buruzko informazioa eskaintzen du.
- Ikertzaileak: zentroaren eta osasun-espezialitatearen arabera taldekatuta agertzen dira.
- Emaitzak: Euskal Osasun Sistemaren emaitza globalak dira. Lau ataletan egituratzen da: Argitalpenak, Sarbide irekia, Tesiak eta Adierazle Globalak.

- **Identifikazio-gakoak behar dira Ezagutzaren Ataria kontsultatzeko?**

Ez. Edukia libreki kontsulta daiteke, sarbide irekiko argitalpenen testu osoa barne.

- **Nola alda dezaket webgunearen hizkuntza-bertsioa?**

Erabiltzailearen interfazea bost hizkuntzatan aurkezten da: euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa eta alemana. Lehenetsita agertzen zaiguna ez den beste bat aukeratzeko, orrialdearen behealdeko barra urdinean aurkituko dugun goitibeherako botoia sakatu behar da:



- **Zein profesional eta ikertzaile sartzen dira Atarian?**

Gaur egun, Osasun Saileko, Osakidetzako* eta Osasun Ikerketako Institutuetako pertsonak sartzen dira, iturri jakin batzuetatik ekoizpen intelektuala eta/edo zientifikoa berreskuratu ahal izan dutenak, bai eta ikertzaile ohiak ere.

*Proiektuaren lehen fase honetan, erakunderen bati atxikitako Osakidetzako profesionalak edo Arabako ESikoak, Bilbo-Basurtuko ESikoak, Donostialdeko ESikoak edo Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESikoak baino ez dira jasotzen. Hurrengo faseetan, lehenengo kargan sartu ez diren erakunde horietako pertsonak sartuko dira, bai eta Osakidetzako gainerako zerbitzu-erakundeetako kideak ere.

- **Zer informazio du profesional edo ikertzaile baten fitxak?**

"Profila" erlaitzean honako hauek aurki ditzakegu:

- Izen osoa (beti)
- Osasun-espezialitatea, halakorik balu
- Zein erakundetako den eta zein zentrotan egiten duen lan (beti)
- Ikerketa-taldeari atxikitzea (Osasun Ikerketako Institutuei atxikitako egileen kasuan bakarrik)
- Egile-identifikatzaile erabilgarriak (Dialnet ID, Scopus ID, ORCID, Researcher ID, Google Scholar, etab.)
- Doktore-tesiaren aipamena, doktoreen kasuan
- Curriculum profesionalaren laburpena (aukerakoa)

- "Argitalpenak" erlaitzean, karga automatikoko iturrietatik bildu ahal izan diren erreferentzia bibliografikoak aurkituko ditugu, baita eskuz gehitu direnak ere. Argitalpenak urteka erlazionatuta agertzen dira. Dokumentu-motaren eta "Sarbide irekia" izaeraren arabera ere iragaz daitezke. Argitalpen bakoitzaren deskribapen- eta adierazle-datuak eskaintzen dira, testu osoaz gain, ahal denean.

- "Lankidetzak" erlaitzean, lankidetzan aritu diren pertsona guztiak agertuko dira, beren ikerketa-zentroekin eta beste datu gehigarri batzuekin.

- "Adierazleak" erlaitzean, jasotako aipuak, inpaktu-metrikak... aurkituko ditugu.

- Gainera, beste bi erlaitz ere ager daitezke, baldin eta atal horietan edukia badago:

- "Tesiak": norberaren tesiak ez ezik, berak zuzendutakoak edo kide izan den epaimahaiaren aurrean defendatutakoak ere jasotzen ditu.

- "Patenteak": berrienetik zaharreneira erlazionatzen dira, eta bakoitzaren oinarrizko datuak jasotzen dira.
- **Sistemako profesionala naiz eta Atarian ikertzaile gisa agertzen naiz. Alda ditzaket nire fitxan agertzen diren datuak?**

Bai, baina, horretarako, identifikazio-gakoak behar dira. Identifikatu ondoren, Atariak zure profila editatzeko eta eremu batzuk aldatzeko edo osatzeko aukera emango dizu: web propioa, aurkezpen pertsonaleko testua, identifikatzaileak datu-baseetan edo sare sozialetan, gako-hitzak eta argazkia.

- **Nola identifikatzen naiz Atarian?**

Dialneten konturik ez baduzu, Dialnet-en erregistratu eta bat aktibatu behar duzu. Horretarako, sartu [Dialnet-en](http://unirioja.es) (unirioja.es), sakatu "Regístrese" eta bete "Alta de usuario" inprimakia.

- **Komeni al zait egile-identifikatzaileak izatea?**

Beti komeni da horiek edukitzea, gure ekoizpena ikusgarriago egiteko Baina, gainera, kontuan izan behar dugu Ezagutzaren Ataria, neurri handi batean, automatikoki elikatzen dela identifikatzaile horietatik abiatuta.

Scopus-en profila datu-baseak berak sortzen du, Dialnet-en profilarekin gertatzen den bezala. Ezin ditugu sortu, baina egile gisa berrikusi ditzakegu, zuzentzeko eska dezakegu edo bi profil batzeko, beharrezkoa denean.

Beste identifikatzaile batzuk, berriz, sor ditzakegu. Autokargak hobetzeko, gutxienez **ORCID profila izatea gomendatzen da**. Sortzeko laguntza behar baduzu, jarri harremanetan zure erakundeko erreferentziako pertsonarekin.

- **Sistemako profesionala naiz, argitalpenak ditut eta ez naiz Atarian ikertzaile gisa agertzen. Zer gertatzen da?**

Hainbat gauza gerta daitezke:

- Dialnet-en identifikatzailea daukat, baina Atariak ez du automatikoki detektatu: bidali osasunlibirtuala@euskadi.eus helbidera zure identifikatzaile zenbakia Dialnet-en.
- Ez daukat identifikatzailearik Dialnet-en, baina bai Scopus-en edo WoS-en (Web of Science): jarri harremanetan osasunlibirtuala@euskadi.eus-ekin eta eman zure Scopus edo WoS zenbakia. Identifikatzaile bat sortuko dizugu Dialnet-en eta Atarira lotuko dugu.

- Bestelako gorabeheretarako, jarri harremanetan osasunlibirtuala@euskadi.eus helbidearekin eta azaldu zure kasua.

- **Zein dira argitalpenen iturriak?**

Atarian jasotako argitalpenak automatikoki kargatzen dira Dialnet eta Scopus-etik, batez ere. WoS-etik (Web of Science) ere bai, neurri txikiagoan.

Gainera, argitalpenak eskuz kargatu ahal izango dira, egileak hala eskatzen badu (aukera hori Atariko profilean egongo da gaituta).

- **Zein aldizkakotasunarekin kargatzen dira argitalpenak Atarian?**

Argitalpenen jatorriaren arabera:

- Dialnet-en sartzen diren dokumentuak 24-48 ordu igaro ondoren pasako dira atarira, betiere egileak Dialnet kodea zuzena badu.
- Scopus-etik datozen argitalpenak 7-14 egunez behin eguneratzen dira, betiere Atarian jasotako dokumentu-mota bat bada eta egileak Scopus kodea Atarian sartuta badu.

- **Zer argitalpen txerta daitezke?**

Gaur egun, hainbat motatako argitalpenen erreferentziak sar daitezke atarian: artikulua, liburua, liburu-kapitulua, tesiak, kongresu batera aurkeztutako komunikazioa, etab. Ezinbestekoa da egilea edo egileetako bat, gutxienez, Euskal Osasun Sistemako profesionala izatea.

Gainera, testu osoa kargatzeko, beharrezkoa da argitalpena Open Access izatea, Creative Commons lizentzia izatea edo egileak adieraztea argitalpen horren ustiapen-eskubideak izatea

- **Argitalpenak falta zaizkidala ikusten dut. Zergatik gertatzen da hau? Sar ditzaket?**

Argitalpenak automatikoki kargatzen dira aldizka, Dialnet, Scopus eta WoS-etik (Web of Science) abiatuta. Automatismoek funtziona dezaten, ezinbestekoa da ikertzaileak edo profesionalak identifikatzailea izatea plataforma horietan, eta identifikazioa zuzena eta bakarra izatea horietako bakoitzean. Zalantzarik baduzu, kontsultatu zure erakundeko erreferentziako pertsonarekin.

Argitalpenak eskuz ere sar daitezke, baina egileak ezin du zuzenean egin, Atariko profilean gaituta aurkituko duen aukeratik eskatu behar du; Atariko administratzaileek eskaera aztertu ondoren, eskatzaileari erantzungo diote eta, hala badagokio, argitalpena sisteman sartuko dute, eskuz.

- **Zergatik ez da Atarian agertzen Dialnet-en edo Scopus-en daukadan argitalpen bat, argitaratu zenetik 14 egun baino gehiago igaro badira?**

Hainbat gauza gerta daitezke:

- Scopus edo Dialnet-en identifikatzaile batzuk ditut, eta Atarian bakarra dut elkartuta.
- Argitalpen bakarra dut Scopus-en, eta, beraz, ez daukat identifikatzailerik.
- Dokumentu-mota ez dago jasota Atarian.
- Aldizkariako artikulak bada, kargatzeko aukeratutako iturriari buruzko gorabeherak gerta daitezke.
- Kontsultatu kasua erreferentziako pertsonarekin zure erakundean.

- **Interesatzen zaidan erreferentzia bibliografiko bat ikusi dut Atarian, baina ez du testu osoa jasotzen. Nola lor dezaket?**

[TOPA!](#) (Euskadiko Osasun Liburutegi Birtualaren aurkikuntza-tresna) tresnaren bilaketa-kutxatilan kopiatu dezakezu DOIa edo PMIDa. Dokumentua Liburutegiko funtsetakoa bada eta tresnan saioa hasi baduzu [OpenAthenseko](#) zure erabiltzailearekin, testu osoa deskargatu ahal izango duzu. Liburutegiko funtsetako bat ez bada, liburutegien arteko mailegu bidez eskatzeko aukera emango zaizu.

- **Norengana jo dezaket Atariari buruzko zalantzarik badut?**

Aurreko erantzunek zure zalantza argitu ez badute, idatzi helbide honetara: osasunlibirtuala@euskadi.eus